

Helburu didaktikoak	Ebaluazio adierazleak
<p>1. Magnitudeen arteko erlazioen eta informazio estatistikoaren ezaugarriak aintzat hartuz eta eragiketak eginez, informazioa laburbildu eta informazio berria sortu.</p>	<p>1.1. Kopuru baten zatia eta igoera eta beherapenen emaitzak indizeen bidez kalkulatu ditu eta, alderantziz, emaitzetatik zatien eta igoera eta beherapenen indizeak eta balioak lortu ditu. Idazkera matematiko egokia erabiliz</p> <p>1.2. Zentralizazio-parametroak (bataz bestekoa, moda eta mediana) kalkulatu ditu, maiztasun-taulak baliatuz.</p> <p>1.3. Zentralizazio-parametroei dagokien esanahia eman die eta haien egokitasuna eta mugak justifikatu ditu.</p>
<p>2. Landutako irizpideen baitan eta informazio kuantitatiboa eraldatuz, adierazpen matematiko baliokideak sortu.</p>	<p>2.1. Ausazko esperimendu sinpleetatik eratorritako gertakariak eta haien oinarrizko gertakariak identifikatu ditu eta gertakari horien probabilitatea kalkulatu du idazkera matematiko egokia erabiliz.</p> <p>2.2. Ausazko esperimendu konplexuetatik eratorritako gertakarien probabilitatea kalkulatu du, esperimentuaren emaitza zuhaitz-diagrama baten bidez modelizatuz.</p>
<p>3. Adierazpen aljebraikoak eraldatu, eragiketak eginez eta propietateak aplikatuz. Problema adierazpen aljebraikora eraldatu eta eskatutako informazioari erantzun, beharrezko eragiketak eginda eta erantzunaren zergatia adierazita.</p>	<p>3.1. Informazio aljebraikoaren adierazpen moldeak (hitzezkoa zein aljebraikoa) identifikatu ditu eta haien arteko eraldaketak egin ditu.</p> <p>3.2. Lehenengo mailako ekuazioak ebatzi ditu. Banatze propietatea eta zatikien propietateak ondo aplikatuz.</p> <p>3.3. Lehen mailako ekuazioekin erlazonatutako problemak modelizatu eta ebatzi ditu.</p>